

# k:

# Kultura

Euskadiko Orkestrak denboraldiaren bigarren zatia berregokitu behar izan du, covid-19aren pandemia dela-eta. «Bizirik» izena du programak, horixe nabarmendu nahian, garai zailetan ere aurrera jarraitzeko konpromisoa. Ruth Reinhardt zuzendaria lehenengo aldiz arituko da Orkestrarekin, baita Augustin Hadelich biolinista ere.

## «Bizirik» programari ekingo dio Euskadiko Orkestrak bihar



Mikel Urquiza, Robert Treviño, Oriol Roch eta Ruth Reinhardt, atzo Donostian egindako agerraldian. Andoni CANELLADA | FOKU

GARA | DONOSTIA

Oriol Roch Euskadiko Orkestrako zuzendari nagusiak honela azaldu du: «Antolaketa konplexu honi heldu diogu asmo handiko bide baten aldeko apustua egin nahi izan duelako Euskadiko Orkestrak, publikoarekin dugun konpromiso argitik abiatuta. Horrekin batera, uste dugu aktibo kultural handia eta bultzada-eragilea dela orkestra gizartearen zatia eta horregatik segituko dugu ahalagintza horretan. Merezki du».

Robert Treviño zuzendari titularrak, ildo beretik, hau esan zuen hedabideen aurrean atzo egindako agerraldian: «Gure helburu komuna, gizarteko edozein kide bezala, elkar babestea eta zaintzea da. Laguntzarako ideia horrekin jarraitu dugu, Euskadiko Orkestra bezala, pandemian nabigatzen gure gizartearen zer-

bitzura. Gure fisikoa, emozioak eta erakundea bera muturreraino eraman ditugu musika pertsonen bihotzera eramateko eta esperientzia komunitario partekatua bultzatzeko helburuarekin. Horretarako, era guztietako neurriak hartu ditugu: programak bikoiztea, EITBn gure kontzertu guztiak ematea, bideo horiek Youtubera igotzea, etab. Hori guztia aurrez aurreko jarduerara bikoizteko asmoz, pertsona bakoitzak orkestra ahal duen moduan goza ahal dezan».

Ekainera bitarteko programazioa ordutegi eta programa desberdinekin birdiseinatu dute. «Orkestrak denboraldiko ohiko 50 kontzertuak eman beharrean 100 eskainiko ditu guztira, abonatuengana eta publiko guztia-erengana iristeko, eta sarrera solte batzuk ere jarriko ditu salgai», zehaztu zuten.

«Bizirik» programa barruan denera hamar kontzertu iragarri ditu. Sei saio eskainiko ditu Donostiako Kursaalaren (urtarrilaren 29an, otsailaren 1ean eta 2an, 17.30ean eta 19.30ean); bat hileren 3an, Bilboko Euskaldunan (19.30ean); bat otsailaren 4an, Gasteizko Principal antzokian (19.30ean); eta bi otsailaren 9an, Iruñeko Baluarte auditoriumean (18.00etan eta 20.15ean).

Donostiako, Bilboko eta Gasteizko kontzertuek Sibeliusen biolinarako kontzertua izango dute ardatz. Musikagile finlandiarrek instrumentu horretarako ezer gutxi idatzi zuen arren,

lan hau bere erreperatorioko obrarik ezagun eta interpretatuenetako bat bihurtu da.

Ruth Reinhardt zuzendari aleman gazteak zuzenduko ditu hamar kontzertuak. Lehen aldiz arituko da Euskadiko Orkestrarekin. 17 urte besterik ez zituela bere opera propioa konposatu eta zuzendu zuen Saarbrückenen, bere jaioterrian.

Augustin Hadelich biolinista aukeratu du Euskadiko Orkestrak lan hau interpretatzeko. Bere debuta ere bada Euskadiko Orkestrarekin. Bakarlarri baten interpretazio onenaren 2016ko Grammy saria eskuratu

zuen eta «Musical America» aldizkariak 2018ko interprete onenaren saria eman zion.

Sibeliusen obraz gain, Donostiako 19.30eko kontzertuetan, Mikel Urquiza musikagile bilbotarraren «Nire itsas munstroak» entzuteko aukera izango da. «Elkano: Mundubira musika bide-lagun» proiektuaren bigarren enkargua da munduko lehen itzuliaren 500. urteurrena gogora ekartzeko.

«Jazoera historiko horri buruz, Urquizar ez zaio hainbeste interesatzen balentria fisikoa, ondorio kultural eta psikologikoak baizik. Hots, «gure mundua amaiduna zela egiaztatzea aurrerapauso izugarria izan zen 'terra incognita' kontzeptuaren desagertzearen; izan ere, Errenazimenduko kartografian apurka-apurka txikiagotu zen munstroak eta herensugeak ageri ziren mapetako tarte hori, eta esplorazio modernoak, azkenik, desagerrarazi egin zuten», adierazi zuten Orkestraren ordezkariak.

«Hiletsitako munstro haiek babesteko orrialde bat da nire pieza, atlasetan sartzen ez den mundu zahar bat gordetzeko alegiazko leku bat», esan du Urquizak.

Iruñeko kontzertuetan Brahmsen «Obertura tragikoa» eta Smetanaren «Nire aberria» obra-ko «Sarka» izango dira entzungai.

Hiru modalitate desberdineko lehen zatiaren ondoren, hamar kontzertuen bigarren zatia berbera izango da: Antonin Dvoraken 5. sinfonia. Lan hau Bohemiako musikagilearen heldutasuneko lehen lan handizat hartzen da eta «kompositore txiroentzako» sari bat irabazi ondoren idatzi zuen.

Saio guztietarako sarrerak salgai daude. Salmentari buruzko informazio guztia Euskadiko Orkestraren webgunean dago eskuragarri: euskadikoorkestra.eus.

Izurriaren eraginez bonuak %20 -mila pertsona ingurumurriztu direla adierazi zuen Oriol Roch-ek. Ordutegi eta edukiera murrizketek bultzatutako erabakia da, «ez Orkestrarekin ez daudela gustura», zehaztu zuten. Diru sarrerari dagokienez, 150.000 euro gutxiago jasoko dutela esan zuen atzo emandako prentsurrekoan.

### EMAKUMEAK

Hiru emakumezko orkestra zuzendarik -Ruth Reinhardt, Gemma New eta Anja Bihlmaier- debuta egingo dute Euskadiko Orkestrarekin.